

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

2020ko kultura, kirol, gizarte eta / edo euskara eta 2019 - 2020ko lehiaketako kirol federatua - eskola kirola sustatzeko jarduerak antolatzeako diru-laguntzen deialdiaren oinarriak onartzea

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran, 2020ko kultura, kirol, gizarte eta / edo euskara eta 2019 - 2020ko lehiaketako kirol federatua - eskola kirola sustatzeko jarduerak antolatzeako diru - laguntzen deialdiaren oinarriak onartzea erabaki zuen.

1. Deialdiaren helburua

Aurrekontuaren mugen barruan, honako jardueren antolaketa laguntzea: kultura, euskararen sustapena, kirola eta/edo gizarte izaerakoak, 2020an; kirol federatua (2019-20) eta eskola kirola (2019-20), Urkabustaizko udalerriaren eremuan, eta helburu batzuk finkatzea, herritarrei bermatzeko, aukera berdintasuna zainduta, zerbitzu hauetarako sarbidea, udal eskumenei dagokien zerbitzuak eta jarduerak osatu edo ordezkatzeko.

2. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun honakoak izan daitezke: gizarte, kirol edo kultur jarduerak duten elkarteak edo taldeak, publikoak eta pribatuak, irabazi asmorik gabeak, eta legearen arabera eratuta eta erregistratuta dauden udalez peko erakundeak, egoitza soziala Urkabustaizko udalerriaren barruan dutenak. Salbuespen izango dira beste udalerritakoak izanda udalerri honetako ikasleak dituzten ikastetxeetako guraso elkateak eta dirulaguntza eskatzen dituzten ekintzetan parte hartzen badute.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak

3.1. Diruz lagundu ahal izango dira, lehentasunez, Urkabustaizko udalerriaren lurralde-eremuan egiten diren jarduerak, honako esparruen barruan: kultura, aisialdia, euskara eta kirola. Ondorengoek izango dute lehentasuna:

- Urkabustaizko udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenek.
- Euskararen erabilera bultzatu eta sustatzen duten programak egiten dituztenek.
- Herritarren parte hartzea bultzatzen dutenek.
- Udalerriaren sustapena egiten dutenek.
- Kulturaren, euskararen eta kirolaren zabalkundea eta sustapena, modu orokorrean edo tokian tokikoa bultzatuz, egiten dutenek.
- Kirol praktikorako eta kulturarako sarbidea errazten duten jarduerak diseinatzeko dituztenek.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko ekintzak eta/edo programak sustatzen dituztenek, eta/edo gutxietsita edo bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak kontuan hartzen dituztenek.
- Bertako tradizioak berreskuratzea sustatzen dutenek.
- Honako jarduerak egiten dituztenek: gazteen aisialdian arriskuen prebentzioa, aisialdiko jarduerak, bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak, ezintasunak dituztenei zuzendutako jarduerak, gazteek gizartean duten papera sustatu eta indartzeko heburua duten jarduerak.

3.2. Entitate bakoitzak lau programa, gehienez, aurkez ditzake.

4. Aurrekontu-kreditua

Urtero, ekitaldi bakoitzerako lantzen den udal aurrekontu orokorrean, aurrekontu partidak esleituko dira, oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzen banaketa partida horien kargu joateko.

Zenbatekoa, egindako eskaeren eta aurrekontu-partidaren horniduraren arabera aztertuko da.

5. Diru-laguntzen zenbatekoa

Udalak diruz lagundu ahal izango du programaren kostuaren aurrekontuaren ehuneko 80, gehienez ere.

Hala ere, Udal honek, programa zehatz batzuetarako, tratamendu berezi bat egin ahal izango du, udalerrarentzat interes berezia badute, eta programaren kostuak ekarritako defizitaren ehuneko 100a lagundu ahal izango du diruz.

Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste edozein laguntzarekin, beti ere gain-finantzaziorik eragiten ez badute. Hau da, diruz beste erakunde batzuekin batera diruz lagundutako zenbatekoak jardueraren kostu osoa gainditzin ez badu. Diru-laguntzen konkurrentziagatik gain-finantzazioa gertatzen bada, onuradunak Urkabustaizko Udalak emandako zenbatekoa itzultzeko betebeharra izango du, diruz lagundutako kopuruarekin lotuta ordaindutako zenbatekoarekin proportzioan.

Diru-laguntzen zenbateko osoak ezingo du, edozein kasutan ere, helburu horretarako esleitutako aurrekontu-partiden kopurua gainditu, Urkabustaizko Udaleko aurrekontu orokorrean.

Zenbatekoa, aurkeztutako eskaeren eta aurrekontu partidako horniduraren arabera aztertuko da.

Diru-laguntzaren ordainketa aurrerapen gisa egin ahal izango da, onuradunak aurkeztu behar duen justifikazioaren aurretik, 12. Oinarrian ezarritakoaren arabera, diru-laguntza jarduera garatzeko ezinbestekoa den kasuetan.

6. Eskaerak aurkeztea

1. Urteko programen edo proiektuen eskaerak aurkezteko epea, seigarren oinarrian zehaztutako dokumentazioarekin batera, 2020ko maiatzaren 4ra arte. Epez kanpo aurkeztutako eskariak ez dira aintzakotzat hartzen.

Izaera puntuala eta/edo ezohikoa duten jarduerak edo programak, aurreikusitako jardueraren hasiera baino hilabete bat lehenago aurkeztu beharko dira. Edozein kasutan ere, urte horretako urriaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira.

2. Eskaera eta dokumentazioa Udal erregistroan aurkeztu beharko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erdiaren 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, 16.4 artikulua finkatutako beste edozein bide erabil dezakezue.

3. Diru-laguntza hauetara aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea dakar.

4. Ezingo dute diru-laguntzarik jaso azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV Tituluan, Diru-laguntzen buruzkoan, adierazitako arau-hausteengatik zigortuak izan direnek.

7. Dokumentazioa

— Eskaera-orri ofiziala (I. eranskina) eta formularioa, udalak eskainiak. Formulario bat bete beharko da proiektu/programako eta/edo denboraldiko.

— Gehienez. 4 (3.2 oinarria ikusi).

— Estatutuen fotokopia, eta Elkarteen eta Erakundeen erregistroan legez eraturta eta izena emanda dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa. Salbuetsita daude aurrez aurkeztu duten erakundeak, denbora-tarte horretan aldaketarik egin ez badute. Udalez peko erakundeak ere salbuetsita daude.

— Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunaren Diruzaintza Orokorrearekiko betebeharrak fiskalak eguneratuta daudela ziurtatzen duen agiria; horren ordean, betebeharrak fiskalen eta zerga-betebeharren ordainketa eguneratuta dagoela adierazten duen zinpeko aitortpen bat aurkeztu ahal izango da. Ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira, komenigarri ikusten bada (II. Eranskina).

Udalak interesdunei eskatuko die aurkitutako akatsak hamar eguneko epean zuzentzeko, eta adieraziko die, hala egiten ez badute, eskaera bertan behera geratuko dela, beste izapiderik egin gabe.

Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko helburuz, erakunde eskatzaileei adierazten zaie, zerrendatutako dokumentuetan agertu beharreko datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiaren urteroko diru-laguntzak emateko prozeduran bakarrik erabiliko direla.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

8.1. Laguntzen zenbatekoa zehazteko, eskaeran adierazitako datuen balorazioa egingo da (eskaera-inprimakia eta I formularioa).

8.2. Diru-laguntzak banatzeko eta zenbatekoa zehazteko balorazio-irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gainditu gabe, ondorengoak dira:

8.2.1. Kultur, kirol, edo gizarte izaerako edo euskara sustatzeko programak/proiektuak. Irizpideak.

* Programan parte hartzea aurreikusten den pertsona kopuruaren arabera.

*Jarduerak iraungo duen egun kopuruaren arabera, edo udalerrian garatutako jardunaldi kopuruaren arabera (ikastaroak, txapelketak, hitzaldiak, ikuskizunak, etab).

* Autofinantzazioa. Proiektua gauzatzeko bideragarritasuna, aurreikusitako finantzazioaren arabera.

* Euskara: euskararen sustapena.

* Gastu konputagarrien aurrekontuaren arabera, jarduera garatzeko bakoitzak duen beharri-zana baloratuko da. Gastu konputagarritzat joko dira, puntu-kopurua kalkulatzeko helburu soilarekin, diruz lagundutako jarduerari egotzi ahal direnak, ondoren adierazten diren kontzeptuen eta gehieneko ehuneko konputagarrien barruan:

Begiraleak – hizlariak – gidak- epaileak: %100

Materiala/espazioak alokatzea, jarduera egin eta mantentzeko guztiz beharrezkoa denean: %100

Ikuskizunak/emanaldiak: antzerkia, bertsolaritza, kirola, ipuin kontalariak, dantza, musika etab: %100

Argitalpenak (oro har herritarren interesekotzat jotzen direnak)

Publicaciones(consideradas de interés general para la población): %100

Jarduera egiteko berariazko asegurua: %100

Anbulantziak, posta-gastuak, baimenen tasak: (abalak ezik): %100

Sarrerak: museoak, parke naturalak, interpretazio zentroak, kultur-bisitak eta antzerakoak: %100

Material suntsigarria (jarduera garatzeko oinarritzkoa den materiala): %75

Dietak, trofeoak – sariak, erakundearen mantenimendu eta funtzionamendu gastuak, autobusak, garraioaren alokairua: %50

Lunch-ak, kartelak, eskuorriak, jarduerak, material inbentariagarria: %25

• Ez dira gastu konputagarritzat joko puntuazioaren eta justifikazioaren baremoaren arabera laguntzaren kalkulua egiteko, baina bai jardueraren gastu totalaren kontaketa egiteko, honakoekin lotutakoak:

- Jatorduak, oro har.
- Erakundearen barne-gastuak (dietak, soldatak).
- Ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorriak.
- Ostatuak, irteera turistikoak edo parekoak egiten direnean.

Eta faktura bidez zuritu ezin diren gastu guztiak (ikusi justifikazioa egiteko azalpena.)

8.2.2. Lehiaketako kirol federatuaren eta eskola kirol federatuaren programa/proiektuetarako irizpideak

- * Finkoa, lizentzia kopuruarengatik: federazioa / eskola kirola
- * Finkoa, arbitrajeengatik (kirol federatua – eskola kirola)
- * Finkoa, entrenatzaileengatik (eskola kirola)
- * Finkoa, autofinantzazioagatik
- * Finkoa, aurrekontuarengatik
- * Finkoa, bestelakoengatik

8.2.2.1. Gastua aurrekontu partida baino handiagoa bada, finkoek lehentasuna dute ondorengo ordenean:

- * Finkoa, lizentzia kopuruarengatik: federazioa / eskola kirola
- * Finkoa, arbitrajeengatik (kirol federatua – eskola kirola)
- * Finkoa, entrenatzaileengatik (eskola kirola)
- * Finkoa, autofinantzazioagatik
- * Finkoa, aurrekontuarengatik
- * Finkoa, bestelakoengatik

8.2.2.2. Eta dirua soberan balego, fitxen edo lizentzien arabera banatuko litzateke.

9. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Diru-laguntzen azterketa, eta, kasu bakoitzean, emateko edo ez emateko erabakia hartzea, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren egingo da.

9.1. Instrukziorako eta ebazteko eskumena duen organoa.

Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoa Kultura Ataleko presidentzia da.

Ebazteko eskumena duen organoa Gobiernoko batzarra da.

9.2. Azterketa eta ebazpena.

Bideratzailearen jardueren artean, honakoak egongo dira:

– Ebazteko beharrezkoa diren txosten guztiak eskatzea. Beste batzuen artean, saileko teknikariarena, eta Idazkari-kontuhartzailearena.

— Eskaeren ebaluazioa, oinarri hauetan definitzen diren irizpideen, helburuen edo lehen-tasunen arabera egina.

Eskaerak ebaluatu ondoren, espedientea bidaliko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikuluan dioena betez, oinarri arautzaileak ezarri dituen organo kolegiatuari. Honek, eskaerei buruzko txostena egingo du.

Espediente eta organo kolegiatuaren txostena ikusirik, organo bideratzaileak behin-behineko ebazpen-proposamen bat egingo du, behar bezala arrazoitua, eta interesdunei jakinarazi beharko zaie, alegazioak aurkezteko hamar eguneko epe bat zabaldua.

Ebazpen-proposamenak, gutxienez, honakoak izan beharko ditu: diruz lagungarri den proiektua, zenbatekoa, jasotako puntuak eta justifikatzeko epea.

Behin betiko ebazpenaren proposamena organo kolegiatuak egingo du, eta Gobiernoko batzarrak, arrazoitutako ebazpenaren bidez behin betiko onarpena emango dio diru-laguntzaren banaketari.

Honek, gutxienez, diru-laguntza ematen zaion eskatzailearen izena edo eskatzaileen zerrenda jaso beharko du, eta baita atzera botatzen diren eskaeren zerrenda ere.

Era berean, ebazpenean interesdunei jakinaraziko zaie bere aurka jarri ahal diren errekurtsoak zein diren. Zein organo judizialen aurrean aurkeztu beharko lituzketeten ere jakinaraziko da, eta baita aurkezteko epea ere, interesdunek komenigarri irizten duten beste edozein ere jarri ahal izango dutelarik.

Ebazteko gehienezko epea lau hilabetekoa(eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita). Epe horretan ebazpenik eta jakinarazpenik ez badago, eskaerak atzera botako dira. Ebazteko gehienezko epea lau hilabetekoa.

Ebazpenak bukaera emango dio administrazio-bideari, eta bere kontra administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9.c) artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Zuzenean inpugnatzen ez bada, hautazko errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organo berberaren aurrean, hilabete bateko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan, ezarritakoarekin bat eginez.

10. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntzaren ordainketa honela ebatziko da:

1. Urteroko izaera duten programetan, diru-laguntzaren ehuneko 75era arteko aurrerapena ordaintzeko aukera ezartzen da.

2. Ezohiko programetarako eta jarduera puntualetarako, diru-laguntza aurrez justifikazioa eta jardueraren memoria aurkeztu ondoren ordainduko da, jarduera amaitu ondoren, eta diru-laguntza emateko ebazpenean adierazitako gehienezko epearen barruan.

3. Diru-laguntzaren ordainketa aurreratu ahal izango da, aurrez onuradunak egiteko bete-beharra duen justifikazioa egin ondoren, 12. Oinarrian ezarritako baldintzen arabera, jarduera garatzeko diru-laguntza jasotzea ezinbestekoa den kasuetan.

11. Justifikatzeko epea

Diru-laguntzen onuradun diren erakundeek hurrengo oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, dagokien ebazpenean adierazten den data baino lehen, eta, edozein kasutan ere, ondorengo epeetan:

— Kultura, kirol eta gizarte izaerako jarduerak eta/edo euskara sustatzekoak—2020: 2020ko abenduaren 30a baino lehen.

— Lehiaketako kirol federatua – eskola kirola (2019-2020): 2020ko urriaren 30 baino lehen.

Hala ere, diru-laguntzaren ebazpenean justifikazioa-memoria aurkezteko beste epe bat agertu ahal izango da.

Eskabidean puntuatutako balorazio-irizpideak osorik edo zati batean betetzen ez badira, lortutako puntuazioa eta diru-laguntzaren ehunekoa aldatu ahal izango dira.

Aurkeztutako gastuak ordaindu direla egiaztatzen ez bada edo justifikazioa epearen barruan aurkeztu ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da, betiere justifikatuta geratzen bada.

12. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa

1) Diruz lagundutako proiektuaren edo programaren memoria-likidazioa (udal bulegoetan eska daiteke ereduak), ondorengo datuak dituenak:

— Egindako jarduerak, denboralizazioa (datak, ordutegia), parte hartzaileak, helburuak eta balorazioa.

— Jarduerak eragindako sarrera eta gastu guztien balantzea. Sarreraren zerrendan edozein kontzepturengatik jasotako sarrerak zehaztu beharko dira: bazkideen kuotak, diru-laguntza publiko edo pribatuak, edo bestelako edozein sarrera ekonomiko (material salmenta, zozketak).

2) Diruz lagundutako jardura(k) egiteak eragindako gastuen ziurtagiriak: faktura, edo gastua egin dela ziurtatzen duten bestelako dokumentuak (jatorrizkoak, edo konpultsatutako fotokopiak). Ziurtatutako kopurua honakoaren parekoa izan behar da, gutxienez: emandako diru-laguntza, gehi erakundeak egindako ekarpena(gutxienez ehuneko 20, edo dagokion ebazpenean adierazten dena). Gastuaren zenbatekoa 300,00 euro baino handiagoa bada, ordainketa egin dela ziurtatu beharko da. Diru-laguntza honetara aurkeztutako fakturak ezingo dira ondorengoei dagozkienak izan: jatorriak oro har, erakundearen barne-gastuak (dietak, soldadak), ibilgailu pribatuaren egindako joan-etorriak, ostatu-gastuak irteera turistiko eta antzekoen kasuan, eta hasierako eskabidean aurreikusi gabeko edozein jardura, aurretiaz ez bazaio Udalarari jakinarazi.

Ez dira justifikazio gisa onartuko ondorengo datuak argi eta garbi erakusten ez dituzten ordainagiri, faktura ticket etab. ak:

— Jaulkitzailearen izena edo izen soziala, eta NAN edo IFZ.

— Jasotzailearen izen soziala eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundearen berbera izan behar du).

— Gastuaren helburua.

— Data.

— BEZ: ezarritako zerga mota(k).

Gastuen ziurtagiriek formularioko kontzeptuen (A, B, C, D) arabera joan beharko dute ordenatuta eta multzokatuta.

Gutxienekoa justifikatzen ez bada (diru-laguntza + ehuneko 20 edo ebazpenean adierazitako kopurua); diru-laguntza proportzioan gutxituko da.

3) Zinpeko aitorpena, beste administrazio, organismo edo erakunde publikoren batetik diru-laguntza edo laguntzarik jaso den edo ez adierazten duena. Beste diru-laguntzaren bat jaso baldin bada, jasotako kopurua zein den eta zein Administrazioak eman duen adierazi beharko da. Era berean, datu horiek egiazkoak direla ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

4) Diruz lagundutako jarduera iragartzeko erabilitako programen, kartelen: aleak. Karteletan udalaren armarria edo/ eta logoa agertu beharko da.

13. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntza jaso duen erakundeak aurkeztu duen proiektua gauzatzeko betebeharra du, eta deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar ditu. Era berean, Diru-laguntzak Arautzeko Udal Ordenantzaren ezarritakoa ere bete behar du.

Zehazki, erakunde eskatzaileari gogorarazten zaio diruz lagundutako jarduera dela eta egingarri iragarki, kartel, testu edo dokumentuak EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu behar direla, eta Urkabustaizko Udalaren babesa jaso duela adierazi behar dutela.

Erakunde onuradunak deialdi honetan emandako diru-laguntza galdu dezakete, aurrez espediente irekita, ondorengo kasuetan:

- Aurkeztutako eskaeran eta dokumentazioan datuak faltsutu badituzte.
- Dokumentazioa aurkezteko epea bukatu ondoren berariaz falta den dokumentazioa aurkezteko eskatu bada, eta ez badute aurkeztu.
- Oro har, diru-laguntzaren oinarrietan edo ebazpenean ezarritako betebeharren bat betetzen ez badute.
- Diru-laguntza galtzeak, jasotako diru-kopurua itzultzea ekarriko du, Urkabustaizko Udalari transferentzia bat eginez. Erakundeak ez badu eskatutako kopurua bere kabuz itzultzen, ezingo du udalaren beste diru-laguntzarik jaso, eta Udalak diru-kopuru hori berreskuratu ahal izango du.

14. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan egindako edozein aldaketak, ebazpenean aldaketak egitea ekar lezake.

15. Diru-laguntzen ateragarritasuna

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein motatako diru-laguntza edo laguntzekin.

Edozein kasutan ere, Udal honek emandako diru-laguntza ezingo da, bera bakarrik edo beste administrazio, erakunde publiko edo organismo emandako diru-laguntza edo laguntzekin batera, onuradunak egin duen jardueraren kostua baino handiagoa izan.

16. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioarekin lotuta sor daitekeen edozein zalantza Alkatetzak ebatziko du, aurrez informazio-batzordearen eta dagokion teknikariaren txostena egin ondoren.

17. Arau-haustea eta zigorrak

Diru-laguntzen kasuan, arau-hauste administratiboak dira, Diru-laguntzak eta Laguntzak Arautzen dituen Ordenantza Orokorreko IV. Kapituluan zehaztutako ekintzak edo omisioak, eta bertan ezarritako prozeduraren arabera zigortuko dira.

18. Legeria gehigarria

Oinarri hauetan adierazitakoa honako legeriak arautzen du: Urkabustaizko Udalaren diru-laguntza eta laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra, eta Lege eta Araudi Orokorra.

Hala jakinarazten da guztiok jakin dezazuen.

Izarran, 2020ko martxoaren 13an

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA